

Nola idatzi...

Biografiak

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

Izan zaitetz zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu besterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitetz harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Beharbada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ariko zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

Biografiatuko duzun pertsona aukeratzea

Idazteko biografia bat aukeratzean, har ezazu egile fidagarriek idatzitako liburuetan edo aldizkarietan deskribatutako bizitza eta lanak dituen pertsonaren bat, zure gaia edozein dela ere. Wikipediako biografia batzuk laburrak dira (eta horrela iraungo dute); izan ere, ez dago horiek hedatzeko aski iturri fidagarririk. Norbaiti buruz idatzi nahi baduzu, hasteko egiazta ezazu hari buruzko aski datu jasota dagoela liburu eta aldizkarietan (aukeran, hainbat iturri fidagarrik baieztatuta).

Biografia artikulua bat hastea

Beharbada, Wikipediako artikulua ez duen pertsona bati buruz idatzi nahiko duzu. Wikipediaren «nabaritasun» jarraibidea betetzen duten pertsonak baizik ez dira egokiak artikulua egiteko. Jarraibide horrek dio Wikipedian biografia izan beharko luketen gizakiek «nabariak» izan behar dutela, hau da, aipagarriak izan behar dutela, edo Wikipedian haiengan arreta jartzea edo haien berri jasotzea merezi izateko bezain adierazgarriak, interesgarriak edo ezohikoak izan behar dutela. Famatua edo jendeak estimatua izatea ez da aski norbait nabaria izateko. Nabaritasunak esan nahi du gizaki horrek aski estaldura jaso duela, eta ez aldi labur-labur batez, gizaki horretatik independenteak diren iturri fidagarrietan.

Lehendik dagoen biografia bat osatzea

Biografia artikulua asko daude Wikipedian, ondo garatu gabeak. Wikipedian, *zirriborro* edo *hastapenetako artikulua* deitzen zaie horrelakoei. Interesatzen zaizun eremu bateko zirriborroak bilatzeko, ikus ezazu | [lasterbidea](#)

WP:Zirriborroak

Zer da lasterbide bat?

WP:Zirriborroak erako testuari, Wikipedian, lasterbidea deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zailak diren orri espezifikotara erraz iristeko.

Gutxiegi ordezkatuta dauden ahotsak sartzea

Bizirik dagoen jendeaz idaztea korapilatsua da, baina jarraibiderik hoberena erraza da. Galdetu iezaiozu zeure buruari: «Zerk egiten du nabarmen pertsona hau, eta zer datuk osatzen dute istorio hori?».

Badira kontuan hartu beharreko zenbait xehetasun, ea bizi den pertsona bati buruzko informazioa Wikipediako artikulua batean sartzeko bezain fidagarria den erabakitzeo. Lehenengo eta behin, kontuan har ezazu iturria. Editoreen gainbegiratze lan ona izan duten testuak nahiago dira, beren lana (dela blog bateko testu bat, dela liburu serie bat) eurek argitaratzen duten egileen gainetik. Lehen mailako iturriak, askotan, ez dira egokiak izaten; bereziki, bizi den pertsona baten biografiarako. Konparazio baterako, epaiketa bateko transkripzioa edota polizia txostenak ez dira iturri onargarriak. Ez eta norberak argitaratutako iturriak, hala nola fanzineak, Twitterreko txioak, blogeko mezuak edota are liburuak.

Bigarrenik, kontuan har ezazu testua bera. Demagun biografiako xehetasun bat aurkitu duzula iturri batean, adibidez egunkari sentsazionalista batean, baina ez beste inon. Iturri hori saihestekoa den seinale da. Galde iezaiozu zeure buruari:

- Iturri hau al da adierazpen horiek egiten dituen bakarra?
- Hitz *lausoak* erabiltzen al ditu —hala nola «dirudienez», «ustez», «diotenez»— edo zurrumurruak edo iturri zehatzik gabeko baieztapenak aipatzen al ditu?

Bizi den pertsona bati buruz iturri eskasekin datorren informazioa berehala ezabatu ahalko da, eztabaida beharrik gabe. Baita Wikipediako zirriborroetarako guneetan eta eztabaida orrietan ere. Era horretako informazioak jartzen badituzu, blokeatu egingo zaituzte beharbada. Dudatan baldin bazabiltza, hobe duzu zalantzazko xehetasunak ez aipatzea.

Eutsi neutraltasunari

Wikipediaren neutraltasun jarraibideek hau aldezen dute: ikuspegi nabarmen guztiak adieraztea, zintzotasunez, proportzioz eta, ahal den neurrian, alderdikeriari gabe. Artikuluek ikuspegi kontrajarrien garrantzi erlatiboa erakutsi behar dute. Ekarpen egokiek ikuspegi horiek jasoko dituzte, baina ezin dute horien alde egin.

Wikipediako neutraltasun jarraibideez gehiago jakiteko, ikus: | lasterbidea [WP:neutral](#)

Biografia artikulua idaztea

Wikipediako tonu entziklopedikoa, beharbada, zure ohiko idazkera akademikoa ez bezalakoa izango da. Ikus itzazu Wikipediako biografia on batzuk, lanean hasi baino lehen.

Adibide onak dira, besteak beste, «Mary Anning», «Jose Antonio Agirre» eta «Imanol» biografiak (kontuan izan artikulua horiek denborarekin bilakatuz joan direla, wikilari askoren lanarekin). Ondo idazteari buruz gehiago jakiteko, ikus: | lasterbidea [WP:estilo](#)

Zer da sarrerako atala?

Sarrerako atala Wikipediako artikulua bateko lehenengo atala da. Sarrerako atal on batek artikulua osoa laburbiltzen du, testuingurua azaltzen du, eta gaiaren alderdi garrantzitsu guztiak aipatzen ditu.

Biografia artikulua baterako, lehenengo esaldian pertsonaren izen-abizenak jarri behar dira letra lodiz; gero, jaiolekua, jaiotza data eta heriotza data parentesi artean; eta gero, pertsona zergatik den nabaria, labur azalduta. Adibidez:

Radia Joy Perlman (Portsmouth, Virginia, AEB, 1951) software-sortzailea eta konputagailuen sare-ingeniarria da, segurtasun informatikoan aditua. *Interneten ama* gisa ezagutzen dute batzuek, nahiz eta berak ezizen hori ez omen duen gustuko.

Wikipediako artikulua bat idazteko estrategia ona izan daiteke lehendabizi sarrerako atalaren zirriborroa egitea; gero, zirriborro hori artikulua gainerakoa idazteko eskematzat erabil dezakezu. Lan horretan aurrera egiten duzun eran, berrikeriaz ezazu aldizka sarrerako atal hori, artikulua gorputza ondo laburbiltzen duela ziurtatzeko.

Idazten ari zaren artikulua antolatzea

Artikulu bakoitza bakarra izango da, baina hona hemen iradokizun batzuk, zer sartu behar duzun. Atal hauek berrantolatu, erantsi edo artikulutik kanpo utz ditzakezu.

Pertsona historiko bati buruzko artikulua

Biografia historikoen adibide onak dira «Oneka Ortiz» eta «Sabin Arana».

Horiek, Wikipediako biografia artikulua askok bezala, egitura hau dute:

- Sarrerako atala.
- Bizitzako hastapenak: testuingurutzat azaltzen dira haurtzarora, jaiolekua eta geroago izango zuen ibilbiderako aipagarriak diren esperientziak.
- Karrera, ekintzak edo esperientzia definitzaileak, kronologikoki eta testuinguru historikoarekin azalduta.
- Ondorena: bere arloan egin zituen ekarpen nagusiak.
- Argitalpenak edo bestelako lanak.

Bizi den zientzialari edo akademiko bati buruzko artikulua

Zientzialari baten datu biografikoak zailagoak izan daitezke aurkitzen, ikuskizunak egiten aritzen den norbaitenak edo atleta batenak baino. Zientzialari baten biografiaren zati handi bat egin dituen aurkikuntza, argitalpen edo ikerlan nagusiei buruz arituko da. Bildu itzazu materialak, eta gero zatikatu itzazu artikulua atal logikoetan. Atal horiek ondorengo eskema honen antza izan dezakete, konparazio baterako:

- Sarrerako atala.
- Karrera: lortu dituen titulu akademikoak eta ikasketak zein unibertsitatetan egin dituen, kronologikoki eta testuinguruarekin azalduta.
- Ikerlanak: azalpen labur bat, zientzialariak bere arloan zer eragin izan duen. Jaso dituen sarien eta omenaldien zerrenda bat egin dezakezu; baina sari eta omenaldi horiek berez nabariak baldin badira soilik.
- Ondorena: haren txosten eta argitalpen nabarientzen —edo aipatuenen— zerrenda.

Funtsezko puntuak

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:

- Idatz ezazu modu inpersonalean, datuetan oinarrituta, estilo entziklopedikoarekin; ez idatzi saiakera baten edo blog bateko testu baten modura. Wikipediako tonu entziklopedikoa, beharbada, zure ohiko idazkera akademikoa ez bezalakoa izango da.
- Emaiezu pisu egokia bibliografian eskuragarri dauden xehetasun guztiei.
- Ea eduki zirrargarria edo eztabaidagarria sartu beharko zenukeen zalantzan baldin bazabiltza, ez ezazu sartu. Erabil itzazu soilik iturri onenak eta fidagarrienak, bizirik dauden pertsonen idaztean.

Beste galderarik baduzu?

Baduzu beste galderarik iturri onak bilatzeaz, nabaritasunaz edo, azken batean, edozertaz? Beti eska diezaiokezu laguntza zure ikastaroko orrian zehaztutako Wikipediako edukietako adituari. Era berean, galdera idatz diezaiekezu wikilariei, Txokoan. | lasterbidea [WP:-Txokoa](#)

Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulua on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.
- Gogoan izan ezazu Wikipediako beste orri bazueta jartzeko estekak ipintzea. Horrela, irakurleek aukera izango dute zuk aipatutako gaiari.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena (https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu trademarks@wikimedia.org helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

